



## **Donostia Spain Convention Bureau-ko Gobernu Kontseiluko kide hautatua**

***Kongresuen Hiri Sareak gaur Ibizan egin duen Urteko Bilkuran, Gobernu Kontseilua osatu eta Ernesto Gasco, Donostia Turismoko zinegotzia, bigarren lehendakariorde izendatu du.***

Bilera-turismo sektorearen etorkizunaz jarduteko ekainaren 6 eta 7an Ibizan bildu da FEMP-en (Espainiako Udallerri eta Probintzien Federazioa) barneko Spain Convention Bureau (SCB). Estatuko 56 kongresu-hirietako ordezkariak Gobernu Kontseilu berria aukeratu dute urteko bilkuran, eta Ernesto Gasco, Donostiako Ekonomiaren Sustapeneko, Merkataritza eta Ostalaritzako, eta Turismoko zinegotzia kontseiluko kide izendatu dute.

Donostia Turismo & Convention Bureau-ren estrategiaren barnean beste pausu bat gehiago da SCBren Gobernu Kontseiluko Gascoren izendapena. Izan ere, nazioarteko kongresuak erakartzearen aldeko apustua, turismoa nazioartekotzeko eta desestazionalizatzekeo tresnarik eraginkorrenetako bat da. Kongresuak hazkunde-potentzial handia izateaz gain, balioa eskaintzen dute termino kuantitatiboetan, lurraldearen dinamizatzaile ekonomiko gisa.

Gasco pozik azaldu da izendapenarekin: “Donostiak geroz eta garrantzia gehiago du kongresu-hiri bezala. Askok aukeratzen dute bere azpiegiturak, kokapena eta paisaia medio. Horrez gain, gastronomia eskaintza erakargarria eta jaialdiak ere kontuan hartzen dituzte. Estatuko kongresu-hirien sareko Gobernu Kontseiluko kide gisa, Donostian bilera-turismoa are gehiago indartzen ahaleginduko gara”.

### **Donostiak nazioarteko kongresuen ICCA rankingean maximo historikoa lortu du**

Nazioarteko Kongresu eta Biltzarren Elkartearen arabera (ICCA) - biltzarren arloan elkarterik entzutetsuena- Donostia munduko sailkapenean 148. postuan dago, Los Angeles, Belfast edo



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,  
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico,  
Comercio, Hostelería y Turismo



Estrasburgo bezalako hirien parean. Donostiak, gainera, Estatu mailan 6. postua du nazioarteko kongresuen sailkapenean.

2015ean bilera eta biltzarren marka historikoa lortu zen, hots, 12.076 kongresu egin ziren, aurreko urtean baino %5 gehiago. Sailkapen horretan, Espainia 4. postuan kokatzen da, eta, Estatuaren barruan, Donostiak 6. postua lortu du Malagarekin batera, soilik Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Bilboren atzetik.

Horren harira, 2015ean, Donostian, 131 ekitaldi ospatu ziren bilera- turismoari lotuta (kongresuak, jardunaldiak, biltzarrak...) eta inpaktua 35.800.000 eurokoa izan zen (ostatu gauak x parte-hartzaileko batez besteko gastua (350 €)). Gainera, azpiegituren eskaintza zabalaren isla, 2015ean izandako nazioarteko kongresuek egoitza oso desberdinak izan zituzten; hala nola, Kursaal Kongresu Jauregia, Miramar Jauregia, Victoria Eugenia eta hainbat unibertsitate zein hotel areto.